# BAROJA EDITADO

# *ARGITARATUTAKO BAROJA*




FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

Sancho el Sabio

Caja Vital Vital Kutxa

N- 229727
FSS EXPO 1

Exposición – *erakusketa*

# Baroja editado
# *Argitaratutako Baroja*

**Lugar / tokia:**
Fundación Sancho el Sabio Fundazioa
Paseo de la Senda 2
01007 Vitoria-Gasteiz

**Fecha / *data*:**
30 de octubre (2006) – 30 enero (2007)
urriak 30 (2006) – urtarrilak 30 (2007)

**Horario / *ordutegia*:**
de lunes a viernes
astelehenetik ostiralera
10'15-13'45
16'15-19'15

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA
Sancho el Sabio
Caja Vital Vital Kutxa

SANCHO EL SABIO

# INTRODUCCIÓN

Pío Baroja nació el 28 de diciembre de 1872 en San Sebastián y falleció el 30 de octubre de 1956 en Madrid. Vivió sobre todo en Madrid, también en Valencia y Pamplona, pero siempre estuvo vinculado al País Vasco. En 1912 adquiere "Itzea" en Bera, Navarra, hasta hoy la casa familiar de los Baroja.

Autor de una dilatada obra literaria, de prosa inconfundible. Escéptico en una época convulsa, pesimista en un tiempo y en una sociedad inestable. Sigue siendo leído y reeditado. Títulos como "La busca", "El árbol de la ciencia"…tienen tiradas anuales importantes, lo que indica el interés actual por su obra.

La Fundación Sancho el Sabio tiene en sus fondos todos los títulos publicados de Pío Baroja, desde sus primeras ediciones. Es un autor constantemente adquirido, buscando ejemplares de las primeras ediciones, de traducciones a otras lenguas, o estudios novedosos sobre su obra. Son cerca de 900 referencias bibliográficas que forman un gran fondo de autor.

Con motivo del cincuentenario de su fallecimiento, la Fundación Sancho el Sabio organiza esta exposición que pretende ser un homenaje a este autor vasco, seleccionando ejemplares raros o curiosos de ediciones de sus obras, en un recorrido por sus novelas, relatos cortos, memorias, ensayos, poesía…Con un especial interés en las primeras ediciones de obras de ambientación o temática vasca.

Se muestra un conjunto de ejemplares de los diversos editores con los que publicó hasta 1956, idea del título de la exposición. La primera edición de los ocho títulos de sus propias memorias: "Desde la ultima vuelta del camino", incluyendo el publicado en 2005. Una colección completa de la primera edición de los veintidós títulos de " Memorias de un hombre de acción".

Otro grupo presenta obras editadas en colecciones populares o en revistas como "La novela corta", "La novela de la semana", "La novela vasca"... que en algunos casos fueron primeras ediciones de los textos y que tuvieron una amplia difusión en su época. Por último se ha seleccionado una edición de sus obras completas, realizada en vida del autor, y que sufrió cambios en el orden de las obras y mutilaciones en algunos textos por la censura.

Pío Baroja es un escritor vasco de proyección universal, su dilatada obra muestra una visión del mundo en la que influye de forma decisiva el paisaje, la cultura y la historia vasca. Escribió entre guerras civiles y entre guerras mundiales, en un tiempo que no invitaba al optimismo. Deja una imagen muy personal del siglo XIX, siglo que parece ver alargarse en la Guerra Civil, en una continuidad narrativa trágica. Quedan sus obras, el Baroja editado, terminando con la obra "Miserias de la guerra" cuya primera edición es de este año 2006.



## *SARRERA*

*Pío Baroja 1872ko abenduaren 28an jaio zen Donostian eta 1956ko urriaren 30ean hil zen Madrilen. Batez ere Madrilen bizi izan zen, baita Valentzian eta Iruñean ere, baina beti eutsi zion Euskal Herriarekin zuen loturari. 1912an, "Itzea" etxea erosi zuen Beran (Nafarroa), eta hori izan da gaur egunera arte Barojatarren familia-etxea.*

*Literatura-obra oparoa sortu zuen, eta haren prosa bere-berea zen. Eszeptikoa garai gatazkatsuan, eta ezkorra garai eta gizarte ezegonkorrean. Oraindik ere irakurtzen eta argitaratzen da Barojaren obra. "La busca", "El árbol de la ciencia" eta beste obra batzuek tirada handiak dituzte urtero, gaur egun haren obrarekiko interesa handia den seinale.*

*Pio Barojak argitaraturiko liburu guztiak ditu Sancho el Sabio Fundazioak bere fondoetan, lehen argitalpenetatik hasita. Etengabe eskuratzen ditu egile horren obrak, lehen argitalpenetako aleak bilatzen ditu, baita beste hizkuntzetara itzulitako aleak eta Barojaren obrari buruzko azterlan berriak ere. Fundazioak Barojari buruzko egile-fondo handia du, ia 900 bibliografia-erreferentziez osatua.*

*Barojaren heriotzaren berrogeita hamargarren urteurrena dela-eta, erakusketa hau antolatu du Sancho el Sabio Fundazioak, honako helburu honekin: euskal egile horri omenaldia egitea, haren obren hainbat argitalpenetako ale bakan edo bitxiak hautatuz eta egilearen obra guztia kontuan izanik: nobelak, kontaketa laburrak, saiakerak, poesia, etab., betiere euskal giroa edo gaia lantzen duten obren lehen argitalpenari arreta berezia eskainita.*

*Erakusketan, 1956ra arte Barojaren liburuak argitaratu zituzten argitaratzaileen ale sorta bat erakusten da, eta hortik hartu da erakusketaren izenbururako ideia. Egilearen oroitzapenen zazpi liburuen lehen argitalpena: "Desde la última vuelta del camino", 2005ean argitaratu zena barne. " Memorias de un hombre de acción" obraren hogeita bi liburuen lehen argitalpenaren bilduma osoa.*

*Barojaren heriotzaren berrogeita hamargarren urteurrena dela-eta, erakusketa hau antolatu du Sancho el Sabio Fundazioak, honako helburu honekin: euskal egile horri omenaldia egitea, haren obren hainbat argitalpenetako ale bakan edo bitxiak hautatuz eta egilearen obra guztia kontuan izanik: nobelak, kontaketa laburrak, saiakerak, poesia, etab.,*

*betiere euskal giroa edo gaia lantzen duten obren lehen argitalpenari arreta berezia eskainita.*

*Erakusketan, 1956ra arte Barojaren liburuak argitaratu zituzten argitaratzaileen ale sorta bat erakusten da, eta hortik hartu da erakusketaren izenbururako ideia. Egilearen oroitzapenen zazpi liburuen lehen argitalpena: "Desde la última vuelta del camino", 2005ean argitaratu zena barne. " Memorias de un hombre de acción" obraren hogeita bi liburuen lehen argitalpenaren bilduma osoa.*

*Beste talde batean, herri-bildumatan edo hainbat aldizkaritan ("La novela corta", "La novela de la semana", "La novela vasca", etab.) argitaratutako obrak agertzen dira. Zenbait testu bilduma eta aldizkari horietan argitaratu ziren lehen aldiz, eta garai hartan izugarri hedatu ziren. Azkenik, Barojaren lan guztien argitalpena hautatu dugu. Argitalpen hori egilea bizirik zegoenean egin zen, eta obren ordena hainbatetan aldatu zen. Zentsurak ere hainbat testu moztu zion.*

*Pío Baroja euskal idazlearen proiekzioa unibertsala da, eta euskal paisaiak, kulturak eta historiak eragin erabakigarria dute haren obra oparoak erakusten duen mundu-ikuskeran. Gerra zibilen arteko eta mundu-gerren arteko garaian idatzi zuen, baikorra izatea zaila zen garaian idatzi ere. XIX. mendeari buruzko irudi pertsonala utzi zuen; haren obran, XIX. mendea Gerra Zibileraino luzatu zela dirudi, narrazio-jarraitutasun tragikoaren eraginez. Bere obrak ere utzi dizkigu Barojak, Argitaratutako Baroja alegia. "Miserias de la guerra" da azkena, 2006an lehen aldiz argitaratu dena.*



## EDITORES (*)

Desde 1900 a 1956 Pío Baroja publicó sus obras con los siguientes editores : Miguel Poveda (Madrid, 1900)y Fermín Herrán (Bilbao, 1900). Bernardo Rodríguez Serra (Madrid, 1900-1901, tres ediciones). Henrich y Cía (Barcelona, 1903). Sempere (Valencia, 1904). Librería de Fernando Fe (Madrid, 1904-1905, cuatro ediciones). Librería de los sucesores de Hernando (Madrid, 1906-1909, cinco ediciones). E. Domenech editor (Barcelona, 1909). V. Prieto y Cía editores, en la Biblioteca Renacimiento (Madrid, 1910-1916, diez ediciones). Rafael Caro Raggio editor (Madrid, 1917-1931, treinta y dos ediciones). Espasa-Calpe (Madrid, 1931-1939, diecisiete ediciones). Biblioteca Nueva (Madrid, 1944-1956, quince ediciones).
Pío Baroja en sus memorias: "Por lo que recuerdo, mis ingresos con los ocho primeros libros míos, al año de salir, fueron los siguientes: Primero, "Vidas sombrías", quinientas pesetas (de menos). Segundo, "La casa de Aizgorri", nada. Tercero, "Aventuras, inventos y mixtificaciones de Silvestre Paradox", nada. Cuarto, "Camino de perfección", nada. Quinto, "El mayorazgo de Labraz", dos mil pesetas. Sexto, "La busca", trescientas pesetas. Séptimo, "Mala hierba", trescientas pesetas. Octavo, "Aurora roja", trescientas pesetas. En conjunto, en aquellos años llegué a ganar cuatrocientas sesenta pesetas (unos ocho duros al mes). Claro que otros no ganaron nada."
(*) Texto y datos tomados de : Guía de Pío Baroja: el mundo barojiano / Pío Caro Baroja ed. Madrid: Caro Raggio: Cátedra, 1987, p. 40

## *ARGITARATZAILEAK (*)*

*Honako hauek dira Pio Barojak 1950etik 1956ra bitartean izan zituen argitaratzaileak: Miguel Poveda (Madril, 1900) eta Fermín Herrán (Bilbo, 1900). Bernardo Rodríguez Serra (Madril, 1900-1901, hiru argitalpen). Henrich y Cía (Bartzelona, 1903). Sempere (Valentzia, 1904). Librería de Fernando Fe (Madril, 1904-1905, lau argitalpen). Librería de los sucesores de Hernando (Madril, 1906-1909, bost argitalpen). E. Domenech editor (Bartzelona, 1909). V. Prieto y Cía editores, Biblioteca Renacimiento liburutegian (Madril, 1910-1916, hamar argitalpen). Rafael Caro Raggio editor (Madril, 1917-1931, hogeita hamabi argitalpen). Espasa-Calpe (Madril, 1931-1939, hamazazpi argitalpen). Biblioteca Nueva (Madril, 1944-1956, hamabost argitalpen).*
*Pío Barojak bere oroitzapenetan: "Gogoan dudanez, nire lehen zortzi liburuekin, honako diru-sarrera hauek izan nituen, argitaratu eta handik urtebetera: Lehenengoarekin, "Vidas sombrías", bostehun pezeta (gutxiago). Bigarrenarekin, "La casa de Aizgorri", ezer ez.*

*Hirugarrenarekin, "Aventuras, inventos y mixtificaciones de Silvestre Paradox", ezer ez. Laugarrenarekin, "Camino de perfección", ezer ez. Bosgarrenarekin, "El mayorazgo de Labraz", bi mila pezeta. Seigarrenarekin, "La busca", hirurehun pezeta. Zazpigarrenarekin, "Mala hierba", hirurehun pezeta. Zortzigarrenarekin, "Aurora roja", hirurehun pezeta. Guztira, urte haietan laurehun eta hirurogei pezeta irabazi nituen (zortzi bat duro hilean). Beste batzuek, hala ere, ez zuten ezer irabazi."*

*(*) Testua eta datuak honako honetatik atera dira: Guía de Pío Baroja: el mundo barojiano / Pío Caro Baroja ed. Madrid: Caro Raggio: Cátedra, 1987, p. 40*



## Nº1

**Baroja, Pío**

La Casa de Aizgorri : novela en siete jornadas / por Pío Baroja. -- Bilbao : [s.n.], 1900 (Andrés P.-Cardenal)
227 p. ; 19 cm. -- (Biblioteca bascongada de Fermín Herrán ; 52)

En 1900 Pío Baroja publica sus primeras obras. La primera edición de "La casa de Aizgorri" aparecerá en Bilbao, dentro de la "Biblioteca Bascongada de Fermín Herrán". Posteriormente este título formará parte de la trilogía "Tierra Vasca". Fermín Herrán, escritor, editor y promotor cultural alavés, edita su "Biblioteca Bascongada" desde 1896 a 1901, publicando 62 volúmenes dedicados a literatura, fueros o historia.

*1900. urtean, bere lehen obrak argitaratu zituen Pio Barojak. "La casa de Aizgorri" nobelaren lehen argitalpena Bilbon egin zen, "Biblioteca Bascongada de Fermín Herrán" bildumaren barnean. Geroago, nobela hori "Tierra Vasca" trilogiaren zati izan zen. Fermín Herrán idazle, argitaratzaile eta kultura-sustatzaile arabarrak "Biblioteca Bascongada" argitaratu zuen 1896-1901 aldian. Guztira, 62 liburuki argitaratu zituen, literaturari, foruei eta historiari buruzkoak.*

## Nº2

**Baroja, Pío**

Idilios vascos / Pío Baroja ; ilust. de F. Periquet y R. Baroja. -- Madrid : Rodríguez Serra, [1901]
87 p. : il. ; 14 cm. -- (Biblioteca Mignon ; 24)

Primera edición en 1901 de esta recopilación de cuentos y novelas cortas, ilustrada por Ricardo Baroja y F. Periquer, dentro de la "Biblioteca Mignon" de Bernardo Rodríguez Serra, que retornó a España en 1900 desde Argentina y se convirtió en editor de escritores jóvenes en Madrid.

*1901ekoa da ipunen eta nobela laburren bilduma honen lehen argitalpena, Ricardo Barojaren eta F. Periquerren irudiak dituena. Bernardo Rodríguez Serra jaunaren "Biblioteca Mignon" bildumaren barnean argitaratu zen. Rodríguez Serra 1900ean itzuli zen Espainiara Argentinatik, eta idazle gazteen argitaratzaile-lanetan jardun zuen Madrilen.*

## Nº3

**Baroja, Pío**
Mala hierba / por Pío Baroja. -- Madrid : Fernando Fe, 1904
556 p. ; 20 cm. – (La Lucha por la vida)

En 1904 en la Librería Fernando Fe de Madrid, aparece la primera edición de "Mala Hierba", perteneciente a la trilogía "La lucha por la vida". Pio Baroja comenta en sus memorias "Yo gané muy poco con la literatura. Cuando me editó Francisco Beltrán, empleado de la librería de Fernando Fe, tres novelas, "La busca", "Mala hierba" y "Aurora roja", me pagó por cada tomo trescientas cincuenta pesetas".

*1904an, Madrilgo Librería Fernando Fe liburu-dendak eman zuen argitara "Mala Hierba" obra lehenengo aldiz. "La lucha por la vida" trilogiaren zati da. Pio Barojak hauxe esan zuen bere oroitzapenetan: "Nik oso diru gutxi irabazi nuen literaturarekin. Francisco Beltrán Fernando Fe jaunaren liburu-dendako langileak hiru nobela argitaratu zizkidanean ("La busca", "Mala hierba" eta "Aurora roja"), hirurehun eta berrogeita hamar pezeta ordaindu zizkidan liburuki bakoitzeko".*

## Nº4

**Baroja, Pío**
Paradox, rey / por Pío Baroja. -- Madrid : Librería de los Sucesores de Hernando, 1906
286 p. ; 18 cm

Novela final de la trilogía "La vida fantástica", firmada por el autor en Madrid y editada por primera vez el mismo año en la Librería de los sucesores de Hernando. Pío Baroja editaría cinco obras en esta librería entre 1906 y 1909.

*"La vida fantástica" trilogiako azken nobela, egileak Madrilen sinatua eta urte berean lehen aldiz argitaratua Librería de los Sucesores de Hernando liburu-dendan. Pío Barojak bost obra argitaratu zituen liburu-denda hartan 1906-1909 aldian.*



## Nº5

**Baroja, Pío**
Zalacaín el aventurero : (historia de las buenas andanzas y fortunas de Martín Zalacaín el aventurero) / Pío Baroja. -- Barcelona : E. Domenech, 1909
288 p. ; 19 cm

Primera edición, de 1909 de una de las novelas más populares de Pío Baroja. Pertenece a la trilogía "Tierra Vasca" y es la una obra editada por Baroja con E. Domenech en Barcelona. Ricardo Baroja ilustraría la cuarta edición en 1920, realizada por Rafael Caro Raggio.

*Pío Barojaren nobela ezagunenetako baten lehen argitalpena, 1909koa. "Tierra Vasca" trilogiaren zati da, eta Barojak E. Domenech argitaratzailearekin Bartzelonan argitaratutako obretako bat da. Ricardo Barojak laugarren argitalpenerako irudiak egin zituen 1920an. Rafael Caro Raggiok argitaratu zuen.*

## Nº6

**Baroja, Pío**
Las inquietudes de Shanti Andía / Pío Baroja. -- Madrid : Biblioteca Renacimiento,V. Prieto y Cía, 1911
381 p. ; 19 cm. – (El mar)

En la Biblioteca Renacimiento de V. Prieto y Cía, aparece la primera edición en 1911 de esta obra perteneciente a la trilogía "El mar" que Pío Baroja terminó en Bidart en 1910. La cubierta es un dibujo de Marco con la proa de un velero. Es una obra independiente de los otros títulos de la trilogía publicados bastantes años después.

*V. Prieto y Cía argitaratzaileen Biblioteca Renacimiento liburutegian argitaratu zuten lehenengo aldiz obra hau, 1911n. "El mar" trilogiaren zati da, Pío Barojak Bidarten 1910ean bukatu zuen trilogiaren zati, hain zuzen ere. Azalean belaontzi baten brankaren marrazkia du, Marcok egina. Trilogiaren beste obretatik bereiz argitaratu zen obra hau; besteak hainbat urte geroago argitaratu ziren.*

## Nº7

**Baroja, Pío**
La estrella del Capitán Chimista / Pío Baroja.-- Madrid: Rafael Caro Raggio, [1930]
334 p. ; 19 cm. – (El mar)

Pío Baroja termina a comienzos de 1930 esta novela que cierra la serie "El mar". El mismo año publica esta primera edición su cuñado Rafael Caro Raggio en la editorial que lleva su nombre. Entre 1917, fecha de la fundación de la editorial, y 1931 Pío Baroja publicó treinta y dos obras con Caro Raggio. La guerra civil termina con esta empresa, que es retomada en 1972 por Julio y Pío Caro Baroja, hijos del fundador y sobrinos del autor.

*1930. urtearen hasieran amaitu zuen Pio Barojak nobela hau, "El mar" saileko azken nobela, alegia. Urte berean, koinatua zuen Rafael Caro Raggiok lehen argitalpen hau argitaratu zuen, izen bera duen argitaletxean. 1917tik (argitaletxea sortu zen urtea) 1931ra arte, Pio Barojak hogeita hamabi obra argitaratu zituen Caro Raggiorekin. Gerra zibilak eragin zuen enpresa hark itxi beharra. 1972an, ordea, berriz ere zabaldu zuten Julio Caro Barojak eta Pio Caro Barojak, fundatzailearen semeak eta egilearen ilobak, hain zuzen ere.*

## Nº8

**Baroja, Pío**
La familia de Errotacho / Pío Baroja. -- Madrid : Espasa-Calpe, 1932
301 p. ; 20 cm. – (La selva oscura)

Novela que inicia la trilogía "La selva oscura". Esta primera edición aparece publicada en 1932 por Espasa-Calpe. Entre 1931 y 1939 Pío Baroja publica diecisiete obras con esta editorial. Espasa-Calpe había surgido en 1926 de la unión de la Editorial Espasa, fundada en Barcelona en 1860, con la Compañía Anónima de Librería y Publicaciones Españolas (CALPE), que había nacido en 1911.

*"La selva oscura" trilogiaren lehen nobela. Lehenengo argitalpen hau 1932an argitaratu zuen Espasa-Calpe argitaletxeak. 1931-1939 aldian, Pio Barojak hamazazpi obra argitaratu zituen argitaletxe horrekin. Espasa-Calpe 1926an sortu zen, Espasa argitaletxeak (Bartzelonan 1860an sortua) eta Compañía Anónima de Librería y Publicaciones Españolas (CALPE) argitaletxeak (1911n sortua) bat egin zutenean.*



## Nº9

**Baroja, Pío**
Canciones del suburbio / Pío Baroja ; prólogo de Azorín. -- Madrid : Biblioteca Nueva, 1944
324 p. ; 20 cm

Entre 1944 y 1956, año de su muerte, Pío Baroja publica quince obras con la Editorial Biblioteca Nueva, fundada en 1920 y que hoy sigue existiendo. Primera edición de "Canciones del suburbio" que es la única obra de poesía de Pío Baroja, publicada en 1944 con prólogo de Azorín.

*1944tik 1956ra arte, hil arte alegia, Pio Barojak hamabost obra argitaratu zituen Biblioteca Nueva argitaletxearekin. 1920an sortu zen argitaletxe hori eta gaur egun jardunean dago oraindik ere. "Canciones del suburbio" liburuaren lehen argitalpena. Pio Barojak egindako poesia-obra bakarra da, eta 1944an argitaratu zen, Azorinek hitzaurrea idatzita.*

## Nº10

**Baroja, Pío**
Miserias de la guerra : las Saturnales / Pío Baroja ; edición de Miguel Sánchez-Ostiz. -- Madrid : Caro Raggio, [2006]
351 p. ; 19 cm

" En 1951 Pío Baroja presentó a censura esta novela que iba a componer, con otras, el ciclo novelesco titulado "Las Saturnales". Su asunto: la Guerra Civil española. En aquel momento, la censura tachó tal cantidad de páginas y de fragmentos que la hicieron impublicable..." Este año 2006, coincidiendo con el cincuenta aniversario de su muerte, Caro Raggio, la editorial familiar de los Baroja, publica por primera vez este texto, preparado y comentado por Miguel Sánchez- Ostiz. Es hasta el momento la última obra editada de Pío Baroja.

*"1951n, Pio Barojak zentsurapean jarri zuen nobela hau. Beste hainbat nobelarekin batera, "Las Saturnales" izeneko nobela-zikloa osatu zuen.*

*Gaia: Espainiako Gerra Zibila. Garai hartan, obra horren orri eta zati ugari ezabatu zituen zentsurak, eta, horren ondorioz, ezin izan zen argitaratu ...". Aurten, 2006an, Barojaren heriotzaren berrogeita hamargarren urteurrena betetzen dela-eta, Caro Raggio Barojatarren familia-argitaletxeak lehen aldiz argitaratu du, Miguel Sánchez-Ostiz egileak prestatuta eta iruzkinduta. Orain arte, Pio Barojaren argitaratu den azken obra da.*



## DESDE LA ÚLTIMA VUELTA DEL CAMINO
## (Memorias del autor) / *(Egilearen oroitzapenak)*

En 1940 Pío Baroja vuelve definitivamente a España. Terminada la Guerra Civil, encuentra un ambiente cerrado, hostil. Comienza a escribir sus memorias en 1941, entre 1944 y 1949 publica siete volúmenes de la serie que tituló "Desde la última vuelta del camino". Desde 1949 a 1956 no se publicó ningún volumen más, pero Pío Baroja dejó inédito el que sería el volumen octavo, referido a su visión, vivencias y opiniones en la primera fase de la Guerra Civil. Redactado entre 1951 y 1952, su publicación se ha retrasado hasta el 2005.

*1940an, Pio Baroja Espainiara itzuli zen behin betiko. Gerra Zibila amaituta, giro itxia topatu zuen, arerio-giroa, alegia. 1941ean, bere oroitzapenak idazten hasi zen, eta 1944-1949 aldian, "Desde la última vuelta del camino" izeneko saileko zazpi liburuki argitaratu zituen. 1949tik 1956ra arte ez zen beste liburukirik argitaratu, baina Pio Barojak argitaratu gabe utzi zuen zortzigarren liburukia; bertan, Gerra Zibilaren lehen faseari buruz zuen ikuspegia eta iritzia azaldu zituen, baita haren bizipenak ere. 1951tik 1952ra bitartean idatzi zuen, baina 2005era arte ez zen argitaratu.*

**Nº11**

I.

**Baroja, Pío**

Desde la última vuelta del camino: memorias. El escritor según él y según los críticos / Pío Baroja.
-- Madrid : Biblioteca Nueva, 1944
317 p. ; 19 cm

Pío Baroja comenzó a redactar sus memorias cuando tenía 72 años. En este primer volumen, publicado en 1944, comenta la crítica literaria sobre su obra. Da su visión de las figuras culturales del momento y justifica y explica su literatura.

*72 urte zituenean hasi zen Pio Baroja bere oroitzapenak idazten. Lehen liburuki honetan (1944an argitaratu zen), bere obrari buruzko literatura-kritikaren gainean aritu zen. Garai hartako kultura-figurei buruz zuen ikuspegia agertu zuen, baita bere literatura justifikatu eta azaldu ere.*

## Nº12

II.

**Baroja, Pío**

Desde la última vuelta del camino: memorias. Familia, infancia y juventud / Pío Baroja. -- Madrid : Biblioteca Nueva, 1944
413 p. ; 19 cm

Segundo volumen, publicado también en 1944. Comienza hablando de su familia tanto paterna como materna, continúa describiendo su infancia hasta 1881, su adolescencia en Pamplona, el traslado a Madrid en 1886, sus estudios de Medicina y termina con sus primeros trabajos, cerrando ya el siglo XIX.

*Bigarren liburukia, 1944an argitaratua hori ere. Liburuaren hasieran, aitaldeko nahiz amaldeko familiaz hitz egin zuen, eta, ondoren, honako hauek deskribatu zituen: bere haurtzaroa, 1881era arte; nerabezaroa, Iruñean bizi zela; 1886an Madrilera joan zenekoa; Medikuntzako ikasketak; eta amaitzeko, lehen lanak azaldu zituen, XIX. mendea amaitu artekoak.*

## Nº13

III.

**Baroja, Pío**

Desde la última vuelta del camino : memorias. Final del siglo XIX y principios del XX / Pío Baroja. -- Madrid : Biblioteca Nueva, 1945
365 p. ; 19 cm

En 1945 publica este tercer volumen. Baroja describe el mundo literario de Madrid. Habla de sus primeras publicaciones y de sus viajes a París en 1899, Londres y Roma, ya en 1909.

*1945ean, hirugarren liburuki hau argitaratu zuen. Bertan, Madrilgo literatura-mundua deskribatu zuen Barojak. Argitaratu zituen lehen obrak aipatu zituen, baita Parisera (1899), Londresera eta Erromara (1909) egin zituen bidaiak ere.*



## Nº14

IV.

**Baroja, Pío**

Desde la última vuelta del camino : memorias. Galería de tipos de la época / Pío Baroja. -- Madrid : Biblioteca Nueva, 1947
422 p. ; 19 cm

Cuarto volumen, editado en 1947. Baroja da una visión muy personal de la cultura de su época. Aparecen retratados pintores, bohemios, escultores, músicos, tipos extraños y ...escritores.

*Laugarren liburukia, 1947an argitaratua. Bere garaiko kulturaren ikuspegi pertsonala eman zuen Barojak bertan. Era askotako pertsonaien erretratua egin zuen obra horretan. Bertan, pintoreak, bohemioak, zizelkariak, musikariak, pertsona xelebreak, eta... idazleak agertzen dira.*

## Nº15

V.

**Baroja, Pío**

Desde la última vuelta del camino : memorias. La intuición y el estilo / Pío Baroja. -- Madrid : Biblioteca Nueva, 1948
321 p. ; 20 cm

En 1948 aparece este volumen de sus memorias que dedica a desarrollar su teoría de la literatura. Incluye artículos, fragmentos de obras y comentarios que ilustran su visión intelectual.

*1948an, Barojaren oroitzapenen liburuki hau argitaratu zen. Bertan, bere literatura-teoria garatu zuen. Artikuluak, obren zatiak eta iruzkinak bildu zituen, bere ikuspegi intelektuala azalduz.*

## Nº16

VI.

**Baroja, Pío**

Desde la última vuelta del camino : memorias. Reportajes / Pío Baroja.
-- Madrid : Biblioteca Nueva, 1948
316 p. ; 19 cm

Como el anterior, este volumen se publica también en 1948. Es una original recopilación de temas variados, que se refleja en el índice: "Lo que desaparece en España, música callejera, Iradier, la expedición de Gómez, ..."

*Aurrekoa bezala, liburuki hau ere 1948an argitaratu zen. Era askotako gaien bilduma da, aurkibidean agertzen denez: "Espainian desagertzen dena, kale-musika, Iradier, Gomezen espedizioa,..."*

## Nº17

VII.

**Baroja, Pío**

Desde la última vuelta del camino : memorias. Bagatelas de otoño / Pío Baroja. -- Madrid : Biblioteca Nueva, 1949
340 p. ; 20 cm

Es el último volumen que apareció en vida del autor, en 1949. Recopila textos, frases, anécdotas, cartas, conversaciones en París en 1939... Seguimos encontrando un pensamiento original y la misma visión literaria de su época.

*Egilea bizirik zegoela argitaratu zen azken liburukia da. 1949an argitaratu zen. Honako hauek bildu zituen: testuak, esaldiak, pasadizoak, gutunak, Parisen 1939an izandako elkarrizketak, etab. Obra honetan ere bere pentsamendu originalari eta garai hartako literaturari buruz zuen ikuspegiari eutsi zien egileak.*



## Nº18

VIII.

**Baroja, Pío**

La guerra civil en la frontera / Pío Baroja ; edición de Fernando Pérez Ollo. -- Madrid : Caro Raggio, [2005]
206 p. ; 19 cm.
Desde la última vuelta del camino: memorias. Tomo VIII

Este volumen octavo de las memorias de Pío Baroja recoge sus vivencias durante las primeras semanas de la guerra civil, vistas desde Bera en Navarra. Permaneció inédito hasta 2005 y parece redactado entre 1951 y 1952.

*Pio Barojaren oroitzapenen zortzigarren liburuki honetan, gerra zibilaren lehen asteetan izan zituen bizipenak bildu zituen, Beran izanda (Nafarroa) zuen ikuspegia bildu ere. 2005era arte ez zen argitaratu eta, dirudienez, 1951tik 1952ra bitartean idatzi zuen Barojak.*

## MEMORIAS DE UN HOMBRE DE ACCIÓN

Ciclo de 22 novelas centradas en la vida del conspirador liberal Eugenio de Aviraneta, tío segundo de la madre de Baroja, que falleció en febrero de 1872, el mismo año del nacimiento del autor. La primera guerra carlista, sus precedentes y sus consecuencias, transcurre por toda la serie. La ficción y los hechos históricos documentados por Baroja se mezclan en una narración que da una visión del siglo XIX español diferente a la descrita por Galdós o Valle-Inclán.

*Eugenio Aviraneta konspiratzaile liberalaren bizitza ardatzat duten 22 nobelaren zikloa. Barojaren amaren osaba txikia zen Aviraneta, eta 1872ko otsailean hil zen, egilea jaio zen urte berean. Lehen karlistada eta karlistada haren aurrekariak eta ondorioak sail guztian agertzen dira. Fikzioa eta Barojak dokumentaturiko gertakizun historikoak nahasten dira Espainiako XIX. mendearen ikuspegia ematen duen narrazio honetan. Narrazioak ez du zerikusirik Galdós eta Valle-Inclán egileek egindakoekin.*

**Nº19**

I.

**Baroja, Pío**

Memorias de un hombre de acción. El aprendiz de conspirador / Pío Baroja. -- Madrid : Renacimiento, 1913
291 p. ; 19 cm

Primer volumen de esta serie de novela histórica que recorrerá la vida de Eugenio de Aviraneta. Desde 1911 Baroja recopila información sobre el personaje y su época. En 1912, en Itzea, firma este volumen que se publicó en 1913 y que comienza en 1837 en Laguardia en plena guerra carlista.

*Nobela historikoko sail honen lehen liburukia, Eugenio Aviranetaren bizitzari buruzkoa. 1911z geroztik, pertsonaia hari eta haren garaiari buruzko informazioa biltzen aritu zen Baroja. 1912an Itzean sinatu zuen liburuki hau. 1913an argitaratu zen. Istorioa 1837an hasten da, Guardian, karlistada puri-purian dagoela.*



**Nº20**

II.

**Baroja, Pío**

Memorias de un hombre de acción. El escudrón del brigante / Pío Baroja. -- Madrid : Renacimiento, 1913
407, 8 p. ; 20 cm

Segundo volumen, firmado en Madrid en 1913 y publicado el mismo año. La narración se centra en la guerra de la Independencia. Aviraneta aparece como guerrillero en Burgos y Baroja añade la información obtenida en sus lecturas de memorias de la época.

*Bigarren liburukia, Madrilen 1913an sinatua eta urte berean argitaratua. Independentzia-gerra da narrazioaren ardatza. Aviraneta gerrillari agertzen da Burgosen, eta garai hartako oroitzapenak irakurrita lortutako informazioa erantsi zuen Barojak.*

**Nº21**

III.

**Baroja, Pío**

Memorias de un hombre de acción. Los caminos del mundo / Pío Baroja. -- Madrid ; Buenos Aires : Renacimiento, 1914
388 p. ; 20 cm

En 1914, en Madrid, Baroja firma este tercer volumen de las memorias de un hombre de acción. Contiene tres narraciones: "La culta Europa", "Una intriga tenebrosa" y "La mano cortada". El objetivo es explicar la génesis de las ideas liberales de España, después de la guerra de la Independencia.

*1914an, "Memorias de un hombre de acción" obraren hirugarren liburuki hau sinatu zuen Barojak Madrilen. Hiru narrazio ditu: "La culta Europa", "Una intriga tenebrosa" eta "La mano cortada". Helburua honako hau da: Independentzia-gerraren ondoren Espainian ideia liberalak nola sortu ziren azaltzea.*

**Nº22**
IV.

**Baroja, Pío**
Memorias de un hombre de acción. Con la pluma y con el sable: crónica de 1820 a 1823 / Pío Baroja. -- Madrid : Renacimiento, 1915
430 p. ; 18 cm

Firmado y publicado en 1915, en Madrid. En este volumen Aviraneta aparece en Aranda de Duero, como regidor, donde hace campaña contra el cura Merino. Utiliza datos históricos, añade situaciones ficticias y coloca el personaje en el centro de la historia de la época.

*1915ean sinatua eta argitaratua, Madrilen. Liburuki honetan, Aviraneta Aranda de Duero herrian agertzen da, errejidore-lanetan, Merino apaizaren aukako kanpaina egiten. Barojak datu historikoak erabili zituen, fikziozko egoerak erantsi zituen eta garai hartako historiaren erdian kokatu zuen pertsonaia.*

**Nº23**
V.

**Baroja, Pío**
Memorias de un hombre de acción. Los recursos de la astucia / Pío Baroja. -- Madrid ; Buenos Aires : Renacimiento, 1915
354 p. ; 19 cm

Este volumen está firmado en Itzea en 1915 y publicado en Madrid el mismo año. Se compone de dos novelas cortas: "La canóniga", ambientada en Cuenca, y "Los guerrilleros del Empecinado en 1823", relato de la campaña basado en documentación original.

*Liburuki hau Itzean sinatuta dago 1915ean, eta Madrilen argitaratu zen urte berean. Bi nobela laburrek osatzen dute: "La canóniga" bata (Cuencan girotua) eta "Los guerrilleros del Empecinado en 1823" bestea. Azken hori kanpainaren kontakizuna da, jatorrizko dokumentazioan oinarritua.*



**Nº24**
VI.

**Baroja, Pío**
Memorias de un hombre de acción. La ruta del aventurero / Pío Baroja. -- Madrid : Renacimiento, 1916
428 p. ; 18 cm

Volumen, de nuevo, firmado en Itzea en 1916 y publicado en Madrid el mismo año. Tiene dos partes: "El convento de Monsant", ambientado en el Mediterráneo y "El viaje sin objeto", un relato de aventuras.

*Liburuki hau ere Itzean sinatuta dago 1916an, eta Madrilen argitaratu zen urte berean. Bi zati ditu: "El convento de Monsant", Mediterraneoan girotua, eta "El viaje sin objeto" abentura-kontakizuna.*

**Nº25**
VII.

**Baroja, Pío**
Memorias de un hombre de acción. Los contrastes de la vida / Pío Baroja. -- Madrid : Rafael Caro Raggio, cop. 1920
241 p. ; 18 cm

